

Luigi Aranbarri

## Ergelen nonbrea

**B**

adira urte batzuk, hamabost bat, ergela naizela dakidala. Telefonista batek eman zidan albistea, hitz horrexekin. Liburuak saltzen dituen espainiar enpresa batetik deitu zidan gurasoen etxera. Harrezkero dakit dakidana, eta ondo eramaten saiatzen naiz.

Kontua da egun batzuk lehenago gutun bat jaso nuela telefonoa jotzeko kontratatua zuen enpresatik, ez dakit zenbat milaka laguneren artean aukeratua izan nintzela, eta sari gisa zortzi milioi pezeta nituela zain, dei bat eginda neureak izango zirenak. Ez hori bakarrik, bost egun baino lehenago hots eginez gero, zortzi ez, hamaika omen ziren emango zizkidaten milioiak. Nik zer egingo baina? Gutuna bil-bil egin eta zakarrontzira bota. Horra nire makurra. Laster nuen ahots gozoa errieta ematen, ea zergatik ez nuen deitu, ez al nuen dirua nahi. Ezetz, nik. Liburuak auzoan erosten ditudala, gustuko dudala saltzailearekin hitz egitea. Tarte-ka, literaturaz hitz egiten dugula. Garesti-ago ateratzen zaizu baina, berak. Seguru asko, nik. Hamaika milioiei uko egin eta liburuak garesti-ago erosi, diagnosiak ez zuen hutsik: tontoa nintzela orduan, oso-osoko ergela. Sasoi hartan *La Atalaya* aldizkariarekin siestaraino etortzen zitzaizkidan Jehovahko Lekukoei bezala, muturren aurrean itxi nion telefonoa.

Denborarekin ahaztu egin nuen ergelarena, hain zokora bota ere nire makurra non normaltzat nuen neure burua, harik eta aspaldiko lagun batek deitu zidan arte. Urteak ziren ez nuela ikusten. Hamar bai. Horregatik harritu ninduen deiak. Ea egongo ginen. Pozarren, nik. Eta hiriburu-ko kafetegi ezagun batean elkartu ginen. Neutroa oso, paisaia ezinezkoen argazki zuri-beltzak hormetan. Nahita aukeratu zuela pentsatu nuen.

Eta halaxe zen, nahita aukeratutakoa.

Ez zidan aukera txikiarik eman iraganaz eta oroimenez hitz egiteko. Bera zen mintzo zena: zer moduz nabilen, non bizi naizen, norekin. Umerik? Horrelako bi txepelkeria. Ez galderak berak, galdetu zuen erak egin zuen geza dena. Tonua, ondo zuen hautatua. Ez zuen lan handirik hartu disimulatzen. Etxerako produktu batzuk zekartzan, “oso onak, bestela inon aurkituko ez ditua-



DANI BLANCO

nak”. Hau ez zetorren ezer opari ematera, ordea. Normala baina garesti-agoa zela dena esan nion. Baietz berak, baina berehala berreskuratuko nuela botatakoa, baita bateko bost jaso ere denbora laburrean. Orduan kontatu zidan laguneren arteko sarearena, berak ni bezala, nik beste batzuk aurkitzearena, piramidean gora egitearena. Gerora ikasi nuen izena: *upliner*-ak.

Lanean irabazten nuen txori kakaz hitz egin zidan, nahi nuena lortzeaz, ez zuen autoestima ikastaro beharrik.

– Ez hadi tontoa izan.

Baina beti dagoenez norik gogoratu, orain hurrengoan izan dut azken jakinarazpen biblikoa, ahantz ez nadin zer naizen. Kanean topo eginda, ezagunen zerrenda zabaleko morroi bat. Zer nabilen. Horrela eta horrela, nik. Zurrut eta purrut, ekarri zuen solasak, izan zen perpausa, ez zuela

Horregatik erosi duela etxe bat Bulgarian, esan zidan.

Hemen garaje batek balio duenarekin, apartamentu eder bat duela Varnan, itsas ertzean. Hara al doan galdetu zion ergelak.

Irribarre ederrez erantzun berak.

– Baita zera ere! Errentan diat. Zer egin behar nian, sos apurrak usteltzen utzi?

deusek ere hainbat kalte egiten poltsikorako nola ez dirua ondo inbertitzeak. Horregatik erosi duela etxe bat Bulgarian, esan zidan. Hemen garaje batek balio duenarekin, apartamentu eder bat duela Varnan, itsas ertzean. Hara al doan galdetu zion ergelak. Irribarre ederrez erantzun berak.

– Baita zera ere! Errentan diat. Zer egin behar nian, sos apurrak usteltzen utzi?

Espekulazioarena aipatu nion, bizitzeko erosten ez diren etxeena.

– Oraindik hala al habil?

Ez dizuet esan: berak eta biok, hala uste dut, boz aukera bera egiten dugu hauteskundeetan. ■